



“SAN VALENTIN – INAUTERIAK 2021” ZOZKETAREN OINARRIAK

ARCCO AMARA MERKATARITZA-ZENTROA #arccoren25urteurrena.

1.- ARCCO BERRI SL sozietateak (IFK: B-75048603; helbidea: Irun plaza 6, 20011 Donostia) “San Valentín – Inauteriak” kanpaina jarriko du martxan bere bezero eta jarraitzaileentzat. Zehazki, bi zozketa egingo dira parte hartu nahi duten eta horretarako betekizunak betetzen dituztenen artean.

2.-Otsailaren 9tik 18ra parte hartu daiteke, biak barne, honela:

2.1. Atera argazki bat Arcco Merkataritza Zentroaren Irun plazarako sarreran dagoen **PHOTOCAL**lean edo gure **BIHOTZ ERRALDOIAREKIN** eta bidali zure datuekin batera (izen-abizenak eta telefono-zenbakia) helbide elektronikoa honetara: ccarccoamara@gmail.com

2.2. Gure **sare sozialen bidez (Facebook eta Instagram)** parte hartu nahi baduzu, bete otsailaren 9tik 18ra bitartean egingo diren argitalpenetan emango diren jarraibideak.

Zozketa honetan ezingo dute parte hartu Arcco Merkataritza Zentroarekiko lan- edo merkataritza-harremanen bat duten pertsonak, ezta merkataritza-gunean lan egiten duten merkataritza eta enplegatuek ere.

3.-Honako hauek zozkatuko dira:

- **Eroski Bidaiak Bikote Plan** bat, **gozatzeko gau bat**. Irabazleak eta bere bikoteak nahi duten paradorean (92 daude aukeran) igaroko dute gaua, eta planak afaria eta gosaria ere hartuko ditu barne, asteburu erromantikoa pasa dezaten.

- **Eroski Bidaiak Sendadiva Familia Plana Pack** bat. Zehazki, honako hau sartzen da plan horretan: gau bat lau pertsonarentzako gela batean El Villa Castejón*** hotelean (parketik 15 minutura dago), gosaria barne, **2 heldu eta 2 haurrentzat –11 urtera bitartekoak–** + parkera bi egunetan sartzeko sarrerak + Mundo Zooprendente jarduera, familiarekin asteburu-pasa egiteko.

Zozketa otsailaren 22an egingo da, ausaz, parte-hartzaile guztien artean. Egun horretan emango dute aditzera Merkataritza Zentroko bulegoek nor diren irabazleak. Parte hartzeko erabili duten bitarteko berberaren bidez jarriko dira harremanetan irabazleekin (posta elektronikoa eta/edo sare sozialak).

4.- Parte-hartzaile guztiek laga egiten dizkiote beren irudi-eskubideak Arcco Berri SLri, baita eskubide hori erabiltzeko baimena ere, zehazki, bidalitako argazkia sare sozialen eta publizitate-pantailen bidez zabaltzeko, San Valentin eta Inauteriak kanpainako parte-hartzearen berri emateko helburu bakarrarekin.

Gainera, enpresa horrek eskubidea izango du irabazleen izen-abizenak, herrialdea, egoitza eta irudia publiko egiteko barneko eta kanpoko komunikabideen bidez (sare sozialak, publizitate-pantailak, etab.), irabazleen irudia zabaltzeko helburu bakarrarekin.

Zozketan parte hartzeak ez du irudi-eskubiderik sortzen.

Arcco Berri SL enpresak eskubidea izango du promozio-ekintzaren baldintzak edozein unetan aldatzeko, baita bertan behera uzteko ere, betiere horretarako justifikazio-arrazoi nahikoa badago.

5.- Arcco Berri SL da bildutako datuen arduraduna, eta datu-base batean gordeko ditu datuok, indarreko legeriak ezartzen dituen segurtasun- eta konfidentzialtasun-neurriak aplikatuta, San Valentin-Inauteriak kanpaina kudeatzeko. Parte-hartzaile guztiek erabili ahal izango dituzte tratamendua jasotzen ari diren beren datuetara sartzeko eta datuok zuzentzeko, ezezteko, aurkaratzeko, ahazteko eta eramateko eskubideak. Ildo horretan, baimena ematen dute beren datuak aipatutako datu-basean sartzeko. Eskubide horiek erabiltzeko, mezu elektronikoa bat bidali behar da direccion@arccoamara.com helbide elektronikora, NANaren fotokopiarekin batera. Jakinarazten dizugu datuok boluntarioki emango dituzula, eta berariazko baimen hori izango dela parte-hartzailearekiko harremana arautuko duen oinarri juridikoa. Baimen hori lortzearen xedea da zozketa bera egitea, eta biltzen diren datuak zentroaren beraren datu-baseetan gordeko dira, Arcco Berri SLk etorkizunean egiten dituen ekitaldien, promozioen eta jardueren berri emateko.

6.- Promozio-ekintza honetan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar. Oinarriok www.arccoamara.com webgunean egongo dira eskuragarri.